# PREVISIBLES RESULTADOS EN MUNGIA

**Los favoritos FUSTO-IBAI PEREZ y GAUBEKA-IMANOL endosaron sendos 3-0 a NECOL-GORDON y LANDETA-BREFEL respectivamente en el inicio del PAREJAS**

Comenzó el espectáculo en Mungia. El Campeonato Parejas de Pala del Consejo Mundial abrió la carrera al título ayer mismo en el Municipal de la localidad vizcaína. No fue un buen comienzo pues los dos partidos fueron sentenciados por la vía rápida, eso sí, por lo favoritos y grandes estrellas de la Pala actual.

Fusto e Ibai Pérez primero y Gaubeka-Imanol después endosaron sendos 3-0 a sus oponentes. A priori eran previsibles las victorias coloradas pero nadie esperaba ni quería que fueran así de claras. En gran medida la culpa de dichos 'fiascos' fue debido al flojo nivel ofrecido por los franceses Necol y Brefel, este último vigente campeón junto a Fusto. La falta de actividad durante un largo periodo de tiempo puede ser la excusa pero a ambos debe pedírseles más, habida cuenta que son los principales protagonistas a entrar a debatir los primeros lugares con las máximas figuras del momento.

En el primero, Fusto e Ibai Pérez mostraron su juego y sus rivales, pese a intentarlo, sobre todo el neófito Gordon, nunca pudieron hacerles frente. El 3-0 final (10-5, 10-7, 10-6) es fiel reflejo de lo acaecido en la cancha. Necol fue quien no dio la talla que se le presupone.

El segundo fue prácticamente calcado pero en este caso el agujero vino desde la zaga. El campeón Brefel jugó muy por debajo de su nivel y ante Gaubeka e Imanol poco se puede hacer si no se da lo máximo. Landeta cumplió pero poco pudo lucir ante los suyos (3-0) - 10-6,10-5, 10-8-.

El viernes próximo (19:30h.) otros dos duelos, también muy atractivos, que todos esperan con impaciencia; Necol-Imanol / Gaubeka-Gordon y Fusto-Brefel / Landeta-Ibai Pérez.

# EMAITZA LOGIKOENAK MUNGIA-N

**FUSTO-IBAI PEREZ eta GAUBEKA-IMANOL-k etzuten hutsegin eta NECOL-GORDON zein LANDETA-BREFEL 3-0 gainditu zituzten BINAKAKOAREN estreinekoan**

Pala hoberenaren garaiari atzo eman zitzaion hasiera Mungian. Munduko Pilota Batzarraren Binakako txapelketaren lehen ihardunaldia jokatu zen bertan nahiz eta atzokoan jaialdi handi horietakoa etzen izan.

Momentuko izar nagusi diren palistei bikote izatea egokitu zitzaien aurkezpeneko zozketan eta beraien lehen aukera ez zuten alperrik galdu ez Fusto eta Ibai Perez-ek, ezta Gaubeka eta Imanol-ek.

Bi bikoteek 3-0ekoarekin atera ziren garaile Mungiako pilotalekutik. Jaialdia hasi aurretik ere eman zitezkeen emaitzak zirela argi dago baina inor gutxik esperotako nagusitasunez lortu zituzten beren lehen garaipen eta puntuak. Ehin handi batean horren 'errudun' nagusiak Necol eta Brefel izan ziren. Frantziarrek ez zuten bererik eman, ezta gutxiagorik ere. Horren arrazoia hainbat astetan izaniko geraldia izan daiteke baina asko gehiago espero da beraiengandik.

Lehen partiduan, Fusto eta Ibai Perez-ek beren ohiko jokua erakutsi zuten eta erraztasun osoz eraman zuten garaipena, 3-0 (10-5, 10-7, 10-6). Ahalegindu ziren auurkariak, batez ere Gordon, baina etzen nahikoa izan. Necol-ek asko gehiago eman dezake eta eman behar du izar nagusiekin lehiatu nahi izanez gero.

Bigarrena ildo beretik joan zen baina zuloa aurrean barik atzean egon zen. Brefel –iaz Fustorekin txapeldun- oso eskas aritu zen eta ondorioz Landeta ezinean ibili zen lehia guztia. Bere zaleen aurrean ezer gutxi erakutsi al izan zuen (3-0) -10-6,10-5, 10-8-. Gaubeka eta Imanol-ek txukun bezain erraz jokatu zuten.

Datorren ostiralean (19:30etan) beste bi partidu iragartzen dira. Biak dira erakargarriak eta ia bakoitzak berea eman eta jendea gustora ateratzen den frontoitik; Necol-Imanol / Gaubeka-Gordon eta Fusto-Brefel / Landeta-Ibai Pérez dira jokatu beharreko lehiak.